

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

Dokumentua betetzeko jarraibideak:

Modu errazenean egiteko prestatu dugu fitxa hau. Dokumentu honek bi parte ditu:

- **Erakundearen inguruko datuak jasotzeko:** Taula batean erakundearen 5 datu nagusi eskatzen dira. Ondoren erakundeko solaskidearen datuak eskatzen dira, baina hauek hautazkoak dira. Helburua da erakundeen artean harremana bultzatzea eta elkarren artean ikastea. Ez baduzu inor zurekin harremanetan jartzea nahi, ez bete solaskidearen datuak.
- **Praktika onen inguruko informazioa jasotzeko:** Praktika onaren titulua eta azalpen laburra eskatzen dizugu. Ondoren, praktika hori behar bezala adierazteko eta azaltzeko egokiak ikusten dituzun dokumentuak, irudiak eta abar txertatu ditzakezu. Helburua da dokumentua irakurtzen duenak ondo ulertzea praktikaren nondik norakoa (zer den, zertarako egin den, praktikaren elementu klabeak zeintzuk diren, lortutako emaitzak zeintzuk izan diren...)

Fitxa euskaraz edo gaztelaniaz bete daiteke.

Gogoratu helburua dela ezagutza eta praktika onak konpartitzea. Horregatik, fitxa hau webgunean modu irekian jarriko dugu. Ez jarri mesedez konfidentzialak diren elementuak edota datuen babeserako legea urratzen dituenak (pertsonek izenak, gainerako datu pertsonalak edo sensibleak direnak).

Eskerrik asko zure erakundearen ezagutza gainerako erakundeekin konpartitzeagatik.

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskutzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	Lehendakaritza
2. Sektorea:	Sektore publikoa
3. Langile kopurua:	
4. Webgunea:	Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza https://www.euskadi.eus/lehendakaritzaren-egoitza/web01-s1ezaleh/eu/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Lehendakaritzak Jaurlaritzaren politikak koordinatzen ditu eta Gobernu-programa garatu eta betearazten du. Bestalde, Kanpo harremanak, Trantsizio soziala eta 2030 Agenda bere gain hartzen ditu. Lehendakaritzaren menpe dago Jaurlaritzaren bozeramailearen arloa ere. http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lehendakaritza/hasiera/

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Asier Aranbarri Urzelai
Helbide elektronikoa:	a-aranbarriurzelai@euskadi.eus
Telefonoa:	+34 945 01 81 53 / 688 717 875

<p>1. Praktika onaren titulua:</p>	<p>Idatzizko harremanetan euskararen erabilera sustatzea</p>
<p>2. Praktika onaren azalpena:</p> <p>Zer da? Zertan datza?</p> <p>Nondik dator?</p> <p>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</p>	<p>Zer da?</p> <p>Euskararen erabilera handitzea du jomuga Lehendakariitzako hizkuntza-plangintzak.</p> <p>Estrategia nagusia izan da Lehendakariitzan dagoeneko zegoen hizkuntza-gaitasuna ustiatzea (euskara-gaitasuna), ustiatzeko baldintza eta neurriak jartzea, eta erabili ahala gaitasuna hobetzea. Alegia, gaitasuna hobetzeko estrategia nagusia euskara erabiltzea izan da, ez berariazko trebakuntza-plana.</p> <p>Erabilera hori baldintzatzen zuten bi langile-multzori bakarrik bideratu zitzaien, hasieran, berariazko hizkuntza-trebakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara ulertzen ez dutenei ulermen hori eskuratzeko (eta, besteak beste: euskaldunen jarduna ez oztopatzeko; euskal hiztunek euskaraz egitea, erdal hiztunek ere natural bizitzeko, alegia, ikasteko aukera gisa, eta, ez, errespetu faltaren adierazle gisa). • Hartzaile izatetik erabiltzaile izateko bultzada behar dutenei, euskaraz egiten dutenen langile kopurua handitzeko. <p>Ez gara xehetasunetan sartuko, baina bai adierazi, erabilera hori handitzeko estrategia ez dela ekintza solteetan oinarritu. Sistema bat sortzea izan da helburua, prozesu-ikuspegitik lan egitea, eta ekintza eta egitasmoen arteko loturak bilatzea.</p> <p>Izandako lorpenak:</p> <p>Idatzizko (eta ahozko) erabilera handitzea lortu dugu eta goranzko joera horri eustea. Emaitza hori ez da ekintza solte baten emaitza izan, noski. Datu bat ematearren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langileen %89k dio gero eta euskara gehiago erabiltzera ausartzen dela (askok beldurra eta lotsa aipatzen dituzte, euskaraz idaztea mugatzen dieten faktoreen artean, baita erdaraz errazago moldatzen direla ere). • Langileen %74k dio aliatuak bilatzen dituela euskararen erabilera handitzeko eta gaitasuna hobetzeko (euskararena talde-erronka dela, behin eta berriz azpimarratzen dugun ideia da, eta erabilera handitzea guztien arteko elkarlanaren ondorio izango dela).

Idatzizko erabilera handitzea lortuta, eta goranzko joera horri eusteko, egin ditugun hiru lanketen berri emango dizuegu xeheago:

- Langileen idatzizko jarduna identifikatu dugu, eta jardun hori euskaraz egiteko trebakuntza-beharrak identifikatu.
- Euskarazko sorkuntza handitzeko eta itzulpenak egiteko protokoloa diseinatu dugu (erakundearen hizkuntza-irizpideetan jasotakoa garatuz).
- Erabilerarekin lotutako trebakuntza-plana berritu edo osatu egin dugu.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

1. Lehendakaritzako Euskararen Gobernantza Eredua

Aurkeztuko dizkizuegun praktika onei markoa jartzeko, interesgarria iruditzen zaigu Lehendakaritzako euskararen gobernantza-eredua labur-labur azaltzea. 6 estrategia edo zutabetan oinarritzen da, eta horietako bakoitza garatzeko hainbat lan-ildo garatzen ditugu. Ondorengo taulan dituzue 6 zutabe horiek:

Ereduaren ezaugarri eta helburuak

Hizkuntza-politikaren arduraren partekatua sustatzen du.

Euskara-gaitasuna eta erabilera uztartzen ditu.

Euskal hiztunen ahaluntze-prozesua eta erdal hiztunekin elkarlana sustatzen ditu.

Itzulpen-kopurua murriztu eta euskaraz sortzea sustatzen du.

Hizkuntza-lorpenei eusteko baldintzak bermatzen ditu.

Euskara-prozesuaren jarraipena eta segimendua egiten du.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2. Idatzizko jardunaren diagnostikoa

Galdetegi bat bideratu genuen, langile bakoitzaren idatzizko produkzioa zein den jakiteko (idatzi luzeak edo laburrak egiten dituzten, zer dokumentu-mota erabiltzen duten...). Bestalde, dokumentu horiek euskaraz egiteko/sortzeko duten gaitasuna jaso genuen eta, bide batez, trebakuntza-beharrak identifikatu.

Galdetegi horretatik lortu dugu jakitea edo berrestea:

- Egunerokoan gehienok gehien erabiltzen ditugunak idatzi laburrak direla. Lehenetsuneko idatziak horiek dira, horiek dira idatzizkoan leku handiena hartzen dutenak. Langileek askotan txosten luzeak aipatzen dituzte, eta pentsatze hutsarekin larritu egiten dira, baina errealitatea bestelakoa da; gehienok egunerokoan idatzi laburrak idazten ditugu (e-mailak direla, administrazio espedienteetako idatzi/txostentxo estandarrek...). Has gaitezen hizkuntza-ohiturak hortik aldatzen.
- Lehendakaritzan erabiltzen diren dokumentu-motak identifikatu ditugu.
- Dokumentu-mota bakoitza nork erabiltzen duen, eta, esan bezala, euskaraz egiteko gaitasunik baduen eta trebakuntza-beharrak non dituen identifikatu dugu.

Jaso dugun informazioa era desberdinetara sailkatu dugu hainbat taulatan, besteak beste: Lehendakaritza osoaren argazkia izateko, Zuzendaritza bakoitzarena, eta baita langile bakoitzaren araberakoa ere. Dokumentuen araberako sailkapena ere bildu dugu.

Esaterako, taula batean jaso genuen idazki-mota bakoitza zenbaterik erabiltzen duten, euskaraz egiteko gai diren, euskaraz egiteko laguntza behar ote duten edo ez diren gai euskaraz egiteko.

Ondoren dokumentu horiek euskaraz idazteko gai ziren galdetu genien eta hiru aukera zituzten erantzuteko (Bai, Bai baina laguntzarekin, Ez)

DATU OROKORRAK		Euskaraz idazteko gai		
		Bai	Bai, laguntzarekin	Ez
1	E-mailak	50	10	1
2	Bilera-deiak/aktak	27	7	3
3	Hitzarmenak, memorandumak eta akordioak	6	8	7
4	Kanpo-kontratazioa egiteko beharren txostena	15	6	9
5	Dirulaguntza izendunak	11	5	6
6	Dirulaguntza zuzenak	9	4	6
7	Ebazpenak	9	4	7
8	Lege-dekretuak eta aurreproiektuak	4	3	8
9	Lana ondo gauzatu izanaren ziurtagiria	4	4	6
10	Ziurtagiriak	16	7	5

Beste taula batean, esaterako, **pertsonen gaitasunaren ikuspegi zabala** jaso dugu.

Lehen zutabeetan zuzendaritzak identifikatu ditugu, eta ondorengo zutabeetan dokumentuak; kasu horretan zenbakiekin identifikatu ditugu, horrela: 1, E-mailak; 2, bilera-deiak...

Irakurketa lerroka egiten badugu, lerro bakoitza langile baten erantzunak jasotzen ditu; langileak zuzendaritzaka multzokatuta daude.

Bestalde erantzunak koloreztatu egin ditugu irakurketa errazteko:

- Dokumentua euskaraz idazteko gai direla diotenak **berdez** identifikatu ditugu
- Gai direla, baina laguntzarekin emandako erantzunak **laranjaz** identifikatu ditugu
- Dokumentua euskaraz idazteko ez direla gai diotenak **gorriz** identifikatu ditugu,
- Dokumentu-mota hori ez dutela idazten dioten erantzunak **grisez** identifikatu ditugu.

Zuzendaritza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA	Laguntz	Laguntz								
	Bai									
	Bai	Bai		Ez						
	Bai		Bai		Bai	Bai	Bai	Bai		
	Laguntz	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
AZTERLAN KABINETEAREN ZUZENDARITZA	Bai									
	Bai	Bai			Bai		Bai			Bai
	Laguntz									
	Bai									
	Bai									
	Bai	Bai								
BIKTIMEN ETA GIZA ESKUBIDEN	Bai	Bai								Bai
	Bai	Bai	Laguntz	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	
	Bai		Ez					Ez	Ez	
	Bai									Bai
	Laguntz				Laguntz	Laguntz				

Aipatutako azterketa hori izan da beste bi lanketaren oinarria: euskaraz sortzeko eta itzulpenak egiteko protokoloa garatu dugu informazio hori oinarri hartuta, eta berariazko trebakuntza-plana ere bai.

3- Euskaraz sortzeko eta itzulpenak egiteko protokoloa

Helburu hauek ditu protokoloak:

- **Euskarazko sorkutza sustatzea**, eta, bide batez **langileen euskara-maila** euskara erabiliz **handitzea**.
- **Kanpora** bidaltzen diren **itzulpenak murriztea** ahal den heinean, edo, gutxienez, kanpora bidaltzen ditugunean, **euskaratik gaztelaniara itzultzeko joera handitzea**.
- Itzulpenetarako **IZO zerbitzua lehenestea** eta irizpideak bateratzea.
- IZO zerbitzua baino **Idazlagun zerbitzua gehiago** erabiltzea, euskaraz sortzea sustatuz.
- **Itzulpen automatikoa** egoki erabiltzeko irizpideak ezartzea.

Irizpideez gain, **itzulpenak kudeatzeko prozedura** ere zehaztu dugu beste agiri batean.

Protokoloa ezagutzeko lotura hortxe duzue, baina beste ñabardura bat egin nahiko genuke, gure ustez, garrantzitsua. Bere garaian langile eta arduradunek normalizazioaren inguruan zituzten diskurtso nagusiak Bildu genituen. Horiek ezagututa, **normalizazioaren aldeko diskurtso eta narratiba kolektibo** bat sortu dugu (etengabe ari gara sortzen). Diskurtso hori lantzen ditugun **egitasmoetan sistematikoki txertatzen** eta garatzen

dugu. Izan ere, **euskal hiztun ahaldundua izatea**, ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait, **prozesu bat da egunero-egunero landu beharrekoa**. Xiri-miria bezala, nahi gabe, guztiak bustiko dituena.

4. Berariazko trebakuntza-plana

Aurreko atalean aipatu dugun protokoloarekin, langile eta arduradunei, bereziki, ahalegina egiteko “eskatu” diegu protokoloaren helburuak betetze aldera, eta normalizazioan jauzi berriak egite aldera. Trebakuntza-planarekin, berriz, ahalegin horretan laguntza eman nahi diegu.

Idatziko jardunaren diagnostikoa eta euskaraz sortzeko protokoloarekin lotuta, trebakuntza-plana berri edo osatu egin dugu.

Trebakuntza-planak 5 zutabe ditu orain:

- Ulermen eta mintzapraktika lantzeko moduluak sarreran aipatu ditugu (hauek ikasturte osokoak dira).
- **Prestakuntza-orokorra:** euskaraz dagoeneko sortzen duten hori, argiago eta hobeto idazteko gidalerroak edo tresnak eskuratze aldera.
- **Administrazio-espediteteetako idazkiak lantzeko moduluak:** momentuz hiru idazki mota aukeratu ditugu (dirulaguntzak, dekretuak eta beharren txostena), eta horiek sortzen dituztenei zuzendutako ikastaroak dira. Idazki-mota bakoitzerako ikastaro bat.
- **Prestakuntza pertsonalizatua:** bosgarren estrategia hau oraindik ez gara garatzen hasi. Langile batek prestakuntza orokorra eta idazki jakin batekin lotutakoa jaso ostean ere, sentitu dezake laguntza beharra. Sortutako hizkuntza-behar horiei erantzuteko irakasle bat jarriko da. Prestakuntza-mota hau jasotzeko, ezinbestekoa izango da aurreko moduluren batean parte hartzea (edo prestakuntza orokorrean edo idazki jakinen lanketan).

Ulermena lantzeko	Mintzapraktika	Prestakuntza orokorra	Espediteteetako agiriak	Pertsonalizatua
Urritik-maiatzera asteen bi egun.	Urritik maiatzera. Astean bi aldiz.	B2 C1 C2 12-15 ordukoa. Astean 3 ordu. Lehendakaritzan bertan.	Diru-laguntza izendunak eta zuzenak. Dekretuak eta lege-aurreproiektuak Diru-laguntzen ebazpen-txostena. Beharren txostena. Dokumentu bakoitzeko moduluko bat (3-6 h ingurukoa)	Prestakuntza orokorrean edo espediteteetako prestakuntzan parte hartzen duenak aukera izango du, trebakuntza pertsonalizaturako .

Prestakuntza orokorra eta idazki jakinen lanketarako **ikastaroen edo trebakuntzaren inguruan, zenbait xehetasun:**

- Trebakuntza eta laneko erabilera uztartzea ditu helburu. **Laneko erabileratik-trebakuntzara-trebakuntzatik-laneko erabilerara.**
- **Etengabeko hizkuntza-trebakuntzaren ideia** erakundearen barneratzea nahi dugu: erabakia da urtero langile gehienek, gutxienez, euskara-ikastaro bat egitea, eta gaitasunaren bilakaera aztertzea.
- **Ahalik eta jende gehienak parte hartzeko**, erakundeak hartutako **zenbait neurri:**
 - Ikastaro **laburrak** antolatu.

- Saioak **Lehendakaritza bertan** egin.
- **Ikastalde txikiak** eta gaitasun aldetik **homogeneoak** antolatu (3-4 lagunekoak).
- **Irakasle onak** bilatu.
- **Arduradunek ere parte hartu** eta langileen partaidetza **sustatu** (“klase orduan, dena utzi, eta klasera”).
- **Ikastaro guztiak** eta **ikastalde guztiak epealdi labur** batean, eta, epealdi **berean** bideratu ditugu; 5-6 astetan ikastaro guztiak egin ditugu, eta, aurrerantzean ere, halaxe egingo dugu. Horrekin lortu nahi izan dugu **idatzizko erabileraren aldeko giro eta dinamika orokor** bat sortzea erakundean, **kutsakorra** izango dena. Gure ustez, estrategia horrekin bete-betean asmatu dugu; inpaktu handiagoa dauka erakunde “osoak” epealdi berean jasotzea trebakuntza, ikastaldek eta ikastaroak urte osoan banatzea baino.
- Irakasleei **helburu nagusi** bat ezarri genien: ikasleengan **jakin-mina piztea, gehiago ikasteko gogoia**. Ikastarotik pozik ateratzea nahi genuen, eta horrekin lotuta, noski, nork bere idazteko era hobetzeko tresna /“truko” batzuk eskuratzea eta eguneroko jardunean aplikatzea.
- Ahalegina egin dugu **ikastaroak abiatzeko**, ahal dela, langile nahiz arduradunen eguneroko idatzizko lan-jardueraren errealitatetik. Alegia, **langileek eurek euskaraz sortutako idatzietatik**. Etorkizuneko estrategia ere, hori izango da.
- Irakaslearen eta langileen balorazioak jaso ditugu. **Oso-oso balorazio positiboa** egin dute. (Ia) guztiek ikasten jarraitzeko nahia adierazi dute. Hurrengo ikastaroak aurrekoaren ildotik izango dira, ñabarduraren batekin. Ordubeteko saioak izan beharrean ordu eta erdikoak izango dira (bereziki, irakasleak hala aholkatuta), eta alor juridikoan aritzen diren langileak zuzenean irakaslearekin diseinatuko dute hurrengo ikastaroa (ikasleek hala eskatuta).
- Erakundea osatzen duten **pertsonen** (langile nahiz arduradun) **%80k hartu du parte** trebakuntza-planean, eta esan bezala hurrengo txandan ere parte hartzeko nahia azaldu dute. Dagoeneko bigarren txanda hori bideratzeko prozesua martxan dugu.